

¡ILL DA!...

On Pedro Mari Otaño
 Zeruetan zaudena,
 Zu izandu zera beti
 Gure maisu onena;
 Bañan gure biotzian
 Gelditu zaigu pena,
 Jaunak deitu zindunetik
 Joateko bere gana.

*Orain aingeru tartian,
 Jesus onakin batian,
 Goza dezazu pakian.*

Euskal-erri ontan ez da
 Izango euskaldunik,
 Malko batzubek botiaz
 Beren biotz barrendik,
 Eta erreguturikan
 Aren animagatik,
 Gure Otaño onela
 Agurtu ez dubenik.

*!Ill naiyen ni ere Jauna
 Nuan laizter bera gana!*

JOSÉ GUIROY.

OROITZ BAT

Zer gertatzen dan oraiñ
 adiarazten nua,
 izkuntzalari ona
 berdin gabekua;
 euskaraz mintzatutzen

zan guztiz yayua,
aren bertsuak aitzen
artzen zan guztua,
zati bat galdua du
Euskara gaisua.

Zenbait aldiz kantatu
diyogu alkarri,
jende askon aurrian
batak bestiari;
itzak onak mintzatzen
Pedro Mari ta ni,
gozotasun guztiyan
ariyaz kantari,
indarra eman nairik
Ama Euskarari.

Orain amabi urte
joan zan emendikan,
utz bat utzirik, gure
Euskal-erritikan;
aren diñ bertsolari
noski oraindikan,
zortu danik ez deitzot
gure lurretikan,
Jaunari kontu eman
diyo Amerikan.

Samurtasun gozuan
egiten zan mintza,
aiñ gogoz jasotzen zan
beti onen itza;
guztirako danikan
arkitzen da gaitza,
zer gauza ederra dan
mundu ontan goitza,
nork beteko du emen
Otañon oroitza.

Bertsuak neurturik
goi-koz zañeraño,
oberik barrundatu
ez det oraindaño;
bertsolari on asko
badirade, baño
joaten diranak bidez
oker besteraño,
argiyenetan goi zan
Pedro Mari Otaño.

Gauza obek gertatzen
zaizkigu munduban,
iritziz gaudelako
leku seguruban;
ezagututzen da bat
zer baliyo duban,
eta oroitzen gera
guziyak orduban,
Jaunak artu dezala
betiko Zeruban.

JOSE ZAPIRAIN ETA IRASTORZA.

